



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:
2026AAH20031

Auzoetako jaiak: Lankidetzaren Hitzarmena

Espediente zk.: 2026AAH20031
Gaia: DIRULAGUNTZA 2026 urterako – Etxeberrietako jaiak
Eskatzailea: Asociación Bihurri Etxeberrietako Jaiak
NAN edo IFK: G75160382

ZUZENETAKO DIRU-LAGUNTZA NOMINATIBOA EMATEKO HITZARMENA

Andoainen, sinaduraren datan.

BILDU DIRA:

Batetik, Marta Lasa Goñi and, Andoaingo Udaleko Hezkuntza eta Kulturako Zinegotzi Ordezkarigisa, aurrerantzean “Udala”.

Bestetik, Nikasio Murillo Tena adinez nagusia eta ***8363** zenbakidun NAN duena, G75160382 IFK duen Asociación Bihurri Etxeberrietako Jaiak elkartearen izenean, aurrerantzean “Jai Batzordea”

Bertan da baita ere Udaleko Idazkaria den Unai Rekondo jn. ekintzaren fede emateko.

PARTE HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Andoaingo Udalaren izenean, Alkateak emaniko 2023/1350 eskuordetzaren ondorioz jasotako eskumenak baliatuta.

Bigarrena, Nikasio Murillo Tena, bere izenean, eta Bihurri Etxeberrietako Jaiak elkartearen ordezkari, IFZ. G75160382 duena, eta helbidea: Larramendi 12-4.C 20140 Andoain (Gipuzkoa).

Bi aldeek elkarri nahiko gaitasuna aitortzen diote hitzarmen hau sinatzeko, eta horretarako

Aurrerakinak:

1. Udalak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen arabera kultura sustatzeko, herritarren partaidetzarako eta gizarte-dinamizaziorako dituen eskumenak erabiliz, interes orokorreko jai-jarduerak laguntzea.

2. Jai Batzordea irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta bere helburuetako bat Etxeberrieta



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:
2026AAH20031

Auzoetako jaiak: Lankidetzeta Hitzarmena

auzoko jaiak antolatzea eta sustatzea da, gizarte-kohesioari eta tokiko tradizioen kontserbazioari lagunduz.

Jai Batzordeak auzoko kultur sustapenean biziki laguntzen du, auzoko jaietan jarduerak programatuz.

3. Hitzarmen honen helburua Jai Batzordearen eta Udalaren arteko harremana erregulatzea da, 2026. urteko auzo jaietan zenbait jarduera desberdin egiteko.

4. 2026. ekitaldiko 1.0500.481.338.00.05.2026 udal-aurrekontuan 5.115 dirulaguntza izendun bat esleitu dela Asociación Bihurri Etxeberrietako Jaiak elkartearen alde, dirulaguntzen arloan aplikatzekoa den araudian xedatutakoaren arabera.

2026/06/11 datarekin, jai batzordeak 2026. urterako prestatutako auzo jaietako egitarau berria aurkeztu zuen. Burutu nahi dituzten jarduera martxan jartzeko gastuei aurre egin ahal izteko, 5.115 euro eskatzen dituzte.

5. Jai Batzordeak 2026/06/11n dirulaguntza izendunaren eskaera aurkeztu duela (erregistro zk: 2026/5526), jardueren memoria deskribatzailea, aurrekontua eta eskatutako gainerako agiriak erantsita.

Horrez gain, Jai Batzordeak honako udal baliabide hauek erabiltzeko baimena ere eskatu du: Aulkiak, mahaia, oholtza, hesiak, jaimak, udal txosna.

6.- Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 22.2.a) artikulua arabera, dirulaguntza izenduna zuzenean eman daiteke hitzarmen bidez.

2026ko uztailaren 30etik abuztuaren 1era ospatuko diren jaietarako egitaraua prestatu dute. Egun horietan jarduera hauek antolatzeko konpromisoa hartu dutelarik:
. Etxeberrietako jaietako egitaraua (erantsita).

7. Jai Batzordearen eskaera aztertutik, eta gastuen eta dirusarreraren behin betiko aurrekontua kontuan hartuta, 2026ko aurrekontuen kargu, 5.115 euroko dirulaguntza ematea onartzea, Etxeberrieta auzoko jaietako jardueretarako eta ekintzetarako.

Azaldutakoaren arabera Bi alderdiek komenigarritzat jotzen dute hitzarmen hau dirulaguntza arautzeko tresna juridiko gisa formalizatzea, eta, gainera, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua ezarri den, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena.



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:

2026AAH20031

Auzoetako jaiak: Lankidetzaren Hitzarmena

Hitzarmena ondorengo klausulei jarraiki arautuko da, bertan jasotzen baitira aldearen konpromisoak diru-laguntza ematea burutu dadin.

KLAUSULAK:

Lehenengoa: Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da jai batzordeak 2026 urtean zehar aurreikusita dituen auzoko jaiak antolatzeko gastuei aurre egiteko Udalak onartutako 5.115 eurotako dirulaguntzaren baldintzak eta konpromisoak eratzea.

Dirulaguntza hau maiatzaren 27ko 1500/2026 alkatetza dekretu bidez onartu den Dirulaguntzen 2026-2028ko Plan Estrategikoan sartuta dago

Bigarrena: Diruz lagundutako jarduerak

Jai Batzordeak aurkeztutako eskabidean jasotako jarduerak finantzatzeko dira, bereziki:

- Jaiei lotutako kultura-, musika-, kirol- eta jolas-ekitaldiak antolatzeko.
- Auzoko jarduerak tradizionalak eta herrikoiak.
- Auzotarren partaidetza eta kohesiora bideratutako programak.
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna eta partaidetza orekatua sustatzen duten jarduerak.
- Jaiei lotutako azpiegitura-, segurtasun-, garbiketa-, aseguru- eta logistika-gastuak.

Bigarrena: Aurrekontua eta finantzazioa.

Diru-laguntzaren gehieneko diru-kopurua 5.115 eurokoa izango da, udal aurrekontuetako 1.0500.481.338.00.05.2026 partidaren kargura joango dena. Partida hori izenduna izatea aurreikusi da 2026. urterako Andoaingo Udalaren Aurrekontu Orokorrean.

Hirugarrena: Hitzarmenaren iraupena

Lankidetzaren hitzarmen hau indarrean sartuko da hitzarmena sinatzen den egunetik eta hiru hilabeteko epean, horren likidazio zuriteketa egiten denean amaituko da.



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:
2026AAH20031

Auzoetako jaiak: Lankidetzaren Hitzarmena

Laugarrena: Andoaingo Udaren konpromisoak

a) Jai Batzordeari 5.115 euroko diru-laguntza ordainduko zaio era honetan: 3.069 euro (%60), hitzarmena sinatu ondoren, eta dirulaguntzaren diferentzia (%40) hitzarmena sinatzen den egunetik kontatzen hasita hiru hilabeteko epean aurkeztu behar duten likidazioa eta zurigarriei oniritzia eman ondoren.

b) Udalak oholta bat kontratatuko du.

c) Udalak beharrezkoa den udal materiala utziko dio elkarteari:
Aulkiak, mahaiak, jaimak, hesiak, udal txosna.

d) Argindar kaja. Udal honetan aurkeztutako jai egitarauaren barne dauden ekintzetarako bakarrik erabiliko da.

e) 40 mahai, 200 aulki eta 2 jaimak uztea. Aipatu materiala Bastero kulturgunetik jaso, lekualdatu eta itzuli, antolatzaileek egin beharko dute Basteroko arduradunarekin eguna eta ordua adostu ondoren (Juanmari Zabala, 943 30 35 40), beti ere noiz jaso eta noiz itzuli **egun batzuk lehenago** adostu beharko dutelarik. Eta utzitako kopuruan eta egoeran bueltatu beharko dituzte. Horrela ez balitz, materiala konpontzen edota berriro erosten Udalak ordaindutako diru kopurua kenduko da kobratzeko geratzen den fidantzatik.

f) Jai Batzordeari jakinaraztea, kioskoaren muntatzeaz "AULKIA" enpresa arduratuko dela. Beraz, muntatzeaz eta desmuntatzeaz hitz egiteko AULKIA enpresara deitu beharko dute.

g) Udalak komunak eta kontenedoreak jarriko ditu.

h) Udalak ekimenak burutzeko beharrezko baimenak emango ditu.

i) Udal txosna erabiltzeko behin-betiko baimena ematea. Baimena jai egunetara lotzen da. Ondoren, berehala desmontatu beharko dutelarik.

JAI BATZORDEARI jakinaraztea Andoaingo Udalak txoznaren erabilerarako onartuak dituen irizpideen 5. atalean diona bete beharko dutela, hau da, txoznaren erantzukizun zibilaren poliza aurkeztu beharko dutela Bastero kulturguneko bulegoetan.

JAI BATZORDEARI jakinaraztea Andoaingo Udalak onartuak dituen irizpideen 2.3. atalak diona bete beharko dutela, hau da *"eskatzaileak berak jasoko eta garraiatuko du Bachiller pabelioitik behar den lekuraino. Berdin egingo du entregatzeko unean"*. Hau koordinatzeko, noiz jaso eta noiz itzuli, Zerbitzuetako lantsailako arduradunarekin (Borja Estevez/Igor Ugarte 943 300 830) koordinatu beharko dute.

JAI BATZORDEARI jakinaraztea, txoznan su-itzalgailu bat eduki beharko dutela.

j) Txoznaren instalazioa arautzen duen Udal Ordenantza ondo bete daitezela eskatzea eta,



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:
2026AAH20031

Auzoetako jaiak: Lankidetzaren Hitzarmena

bereziki, 3. artikuluko atalak, eta zaborrak eta hondakinak uzteko orduan, kale horretan Udalak eguneroko zaborrentzat jarrita dituen edukiontzietan uztea eskatzea.

Eta, txoznetako musika gaueko programaren azken ekitaldia bukatzen den momentu berean itzuliko den betebeharraren, eta txozna berriz, gaueko ekitaldia bukatu eta 45'geroago ixtearena.

k) Horrez gain, baldinza hau bete beharko da: Txoznaren pertsonen duintasunaren aurkakoak diren kartelak edo ikurrak, zein indarkeria bultzatzen dituztenak ez jartzea. Baldintza hau bete ezean, emandako baimena kendu egingo da.

l) Udalaren eta eragile desberdinen artean landu eta adostu diren indarkeria matxistak eragindako erasoen aurkako neurriak errespetatzea.

m) Jai batzordeari jakinaraztea Udaltzaingoaren laguntza eskuratzeko, udaltzain buruarekin harremanetan jarri beharko direla.

n) Jai Batzordeari jakinaraztea Udalak hartuko duela bere gain argi-indarraren kudeaketa.

Bosgarrena: Diru-laguntzaren entitate onuradunak harturiko konpromisoak.

Hitzarmen honi jarraiki, diru-laguntzaren onuradunak harturiko konpromisoak hauek dira:

a) Jai batzordeak ekimena garatuko du, aurkezturiko dokumentazioaren arabera.

b) Jaiaren ekintzen batek anbulantzia bertaratzea eskatuko balu, behin erabakia helarazi ondoren, Gurutze Gorriaren aurrean aurkeztu beharreko eskaera fitxak bideratzeko ardura zuzena jai batzordearena izango da.

c) Udal materialaren erabilera:

- Baimendutako udal materiala laneko ordutegiaren barnean jaso beharko da. Materiala itzultzeko berdin jokatu beharko da.
- Jaietan erabilitako udal azpiegitura jaiak bukatu eta lau egun buruan itzuliko da.
- Materiala jaso, lekualdatu eta itzuli, eskatzaileek beraiek egin beharko dute Obra eta Zerbitzuetako edota Kulturako arduradunarekin aldez aurretik adostu ondoren. Hesiak berriz, jaiak bukatu eta udaletxeko Obra eta Zerbitzuetako langileek utzitako leku bereberran utzi beharko dituzte.
- Udalak dituen mahaiak eta aulkiak erabili ahal izateko, 2014.03.14ko Tokiko Gobernu Batzordeak onartutako irizpideak bete beharko dira.
- Kiosko edo oholtzaren eta karparen muntaiarako, Jai Batzordea, Udalak horretarako kontratatuta duen enpresarekin jarriko da harremanetan, muntatzea eta desmuntatzea enpresa honen ardura baita eta kostua Udalaren gain izango da.



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:
2026AAH20031

Auzoetako jaiak: Lankidetzaren Hitzarmena

Oharra: Jai Batzordeari utzitako udal materialaren bat egoera txarrean edo apurtuta bueltatuko balute, dirulaguntzaren bigarren zatirengatik jaso beharko luketen diru kopurutik deskontatuko da konponketa horren gastua. Iritsiko ez balitz, diferentziaren ordainketa egin beharko dute.

d) Jai Batzordeek jai horietan txosnarik jarri nahi badute edo beste inork horretarako duen asmoaren berri izaten badute, indarrean dagoen araudia bete beharko dute baita horretarako dagoen egutegia ere (1996ko Uztailaren 19ko GAO, 140).

Andoaingo Txosna Batzordeak Udalarekin eta Mugimendu Feministarekin osatutako eta adostutako Eraso Matxisten Aurkako protokoloa izango du, eta txosna gunean zain inguruan protokolo hori betearaziko du. Horrez gain, Udalak tabernariak eta jaietan parte hartzen duten hainbat eragile informatuko eta formatuko ditu protokoloa aplikatzera deituaz.

e) Behin behineko instalakuntzen segurtasun neurrien klausula.

Jai-batzordeak **Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea** garatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuan eta horrekin bat datorren araudian xedatutakoa bete beharko du. Puzgarriak erabili aurretik, eta aipatu erregelamenduak ezartzen duen bezala, ziurtagiri teknikoak eskuratu beharko ditu eta **dagokion udal-sailari aurkeztu beharko zaio dagokion prozedura izapidetzeko**. Baldintza hori bete ezean, ezingo dira puzgarriak erabili, ezta 50 km/h-tik gorako haizeteak gainditzen badira ere.

f) Karparen kasuan, 80 km/h-ko haizeteak gainditzen badira, karpa kendu beharko da.

g) Ordenantzan eta Legean onuradunei ezarritako eginbide guztiak bete beharko ditu, eta batez ere:

- Diru-laguntza eman duen erakundean justifikatu beharko du betekizunak eta baldintzak beteko dituela, hala nola jarduera burutu eta diru-laguntza emateak edo izateak zehazten duen helburua beteko duela.
- Eskumeneko erakundeak egin beharreko egiaztatze jarduerak onartuko ditu, eta eskatzen zaion informazioa ekarriko du.
- Beste diru-laguntza batzuk jasotzen baditu diru-laguntza eman duen erakundeari jakinaraziko dio, hala nola bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo diruz lagunduriko jarduerak finantzatzen dituzten baliabideak. Hori guztia jakinaraziko beharko da jakin bezain laster, eta, hala balegokio, hartu beharreko diru-kopuruak kobratuko direla justifikatu aurretik.
- Ordainketak egiteko, zerga-betebeharretan eta gizarte-segurantzaren arlokoetan egunean daudela egiaztatu beharko dute.



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:
2026AAH20031

Auzoetako jaiak: Lankidetzaren Hitzarmena

- Kontabilitate liburuak izango ditu, tramitaturiko erregistroak eta bestelako dokumentazioa behar bezalako auditoria eginda merkataritzako eta sektoreko legeak eskaturiko baldintzetan. Izan ere, era horretan helburu da egiaztatze eta kontrol eskumenak behar bezala burutuko direla bermatzea.
- Jasotako diru-kopuruaren aplikazioaren justifikazio dokumentuak gordeko ditu, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatu eta kontrolatu daitezkeen bitartean, hau da lau urteko epean zehar, alegia.

h) Jasotako diru-kopuruak itzuliko ditu, baldin eta Legearen 37. artikuluan aurreikusiriko egoerak gertatzen badira.

i). Hizkuntza ofizialen erabileraren alorreko klausulak:

Elkarte onuradunak Andoaingo Udalak onartutako Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak bete beharko ditu, hain zuzen, 2.5.2 puntuan azaltzen direnak dirulaguntzak, hitzarmenak, baimenak, lizentziak eta instalazioen zein materialen lagapenatarako hizkuntza irizpideak:

- Xede den jarduerak herritarrekin harreman zuzena izatea dakarrenean, euskararen erabilera normalizatua bermatuko da.
- Ekitaldi edo jardunetan, argitaratutako idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta ezagutzera emango dira. Hartzaileak haurrak, gazteak edo euskal hiztunak diren kasuetan, euskara hutsean egin ahal izango da komunikazioa.
- Propaganda, ahozkoa nahiz idatzizkoa, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko da, betiere mezuaren hartzaileen hizkuntza ezaugarriak kontuan hartuz.
- Ospakizun konkretuetan bozgorailu bidez ematen diren mezuak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dira.
- Hizkuntza paisaiari dagokionez, bi hizkuntza ofizialetan egongo da. Ondoren aipatzen diren kasuetan euskara bakarrik erabiltzearen hautua egingo da:
 - – Piktogramak erabiltzen diren kasuetan
 - – Errotulu, seinale eta antzekoetan euskaraz eta gaztelaniaz oso antzeko grafia duten
 - hitzak idazterakoan (“kultura”)
 - – Mezua erraz ulertzen denean (“kanposantua”)
 - – Oso izen ezagunak eta ezagutuak direnean (“udaletxea”, “kiroldegia”)
 - – Ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak eta hartzaileen hizkuntza-ezaugarriek hala eskatzen dutenean (haurrentzako ekintza batean, esaterako).
- Hizkuntza ofizial biak erabiltzen direnean, lehentasuna emango zaio euskarari. Horretarako, euskarazko testua goian edo ezkerrean jarriko da, hizki larri, lodiz edo letra tamaina handiagoarekin nabarmenduta.



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:
2026AAH20031

Auzoetako jaiak: Lankidetzaz Hitzarmena

j) Berdintasunerako klausula:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23. artikuluan xedatutakoa betetzeko, dirulaguntzak ematean ezarritako betebeharrak bete direla justifikatzeko memorian sexuaren arabera bereizitako informazioa emango zaie emandako zerbitzuaren azken onuradunei edo erabiltzaileei, erakundearen titularrei eta erakundeko plantillari, eta, hala badagokio, dirulaguntzaren xede den zerbitzua emateko kontratatutako erakundeari.

Dokumentazio guztiak, publizitateak, irudiak edo materialek hizkuntza ez sexista erabiliko dute, emakumeak diskriminatzeko edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko dute, eta berdintasun, presentzia orekatu, bestelakotasun, erantzunkidetasun, eta genero-identitate aniztasunerako balioak sustatuko dituzte.

Beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte, bai sexuaren ziozko bereizkeria saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonen parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izan dezatela kultura-jarduera guztietan.

Debekatu egiten da emakumeek gizonetikiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztokatzen duten kultura-jarduerarik antolatzea eta egikaritzea gunen publikoetan.

Udalak bultzaturiko edo hartutako genero indarkeriaren aurkako neurri bereziak edo martxan jarritako kanpainak zabaltzen parte hartze aktiboa izango da.

m) Ingurumenaren alorreko klausula: Diru-laguntzaren entitate onuradunak, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko ditu ondorengo alorretan: (1) aurrezte eta energia eraginkortasuna, (2) hondakinen frakzio ezberdinen kudeaketa eta bilketa, honek sortzeari aurrea hartzeaz gain, (3) tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak), (4) baliabide naturalak aurrezte (ura, kontsumo iraunkorra), (5) sorturiko hondakin-uren behar bezalako bilketa, (6) mugikortasun iraunkorra sustatzea, eta (7) indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugak gaindiko zaratarik ez sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea.

Paperezko euskarrian Udaletxean aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez, %100ean birziklatutako papera izango da, batere klororik gabekoa, eta bi aldeetatik inprimatuta.

n) Jarduera eta erabiliko hedabide guztietan (irratia, prentsa, kartel, eskuko programa, etab.) jasota utzi beharko da proiektua finantzatzeko Andoaingo Udaren lankidetzaz, esaldi honen arabera: "Andoain Udaren laguntzarekin". Esaldi horri Herribilduaren armarrakia gehituko zaio, hedabidea idatzia bada. Baldintza hori bete beharko da laguntzaile bakarra Andoaingo Udala denean, hala nola babesak beste laguntzaile batzuekin banatzen denean. Azken kasu honetan



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:
2026AAH20031

Auzoetako jaiak: Lankidetzeta Hitzarmena

arestiko esaldiaren tamaina gutxienez erabiliko den handienaren adinakoa izango da.

Jaien egitarauan, kartel nahiz programetan, Andoaingo Udalaren laguntza azalduko da modu berezi eta argian.

m) Jai Batzordeek inprentara bidaltzeko egitaraua prest dutenean, Udalarik PDF formatuan bidaliko diote honek egoki ikusten duen modura zabaldu dezan.

Behin inprentatik jaso ondoren, jatorrizko programaren, nahiz kartel iragarlearen hamarna ale Bastero Kulturgunean egoitza duten Udalaren Kultura Lansaileko bulegoetan utziko dira.

Seigarrena: Dirulaguntzari egin beharreko jarraipena eta justifikazioa.

Andoaingo Udalak, Kultura eta Hezkuntza saileko teknikariaren bitartez, jarraipena egingo du eta diru-laguntzaren justifikazioa egokia dela egiaztatuko du, eta, era berean, jarduera gauzatu dela eta diru-laguntza eman edo izateko zehazturiko helburua bete dela.

Dirulaguntzaren entitate onuradunak, jaiak amaitzen diren egunetik kontatzen hasita hiru hilabeteko epean, Udalean aurkeztu beharko du diru-laguntzaren xede duen proiektuaren garapenaren memoria bat baita balantze ekonomikoa jai batzordeko ordezkariak sinatuta. Bertan 2026ko ekimena burutzeko aurreratu diren gastuei buruzko azalpenak emango dira.

Gastuak egiaztatuko dira ordain-agirien edo merkataritzako trafiko juridikoan balio frogagarri baliokidea edo administrazio eraginkortasuna duten bestelako dokumentuen bidez.

Jarduerak, diru-laguntzaz gain, finantzatu direnean, norberak dituen diru-sarrerekin edo bestelako diru-laguntzekin edo baliabideekin, justifikazioan zenbatekoa egiaztatu beharko da, nondik datorren eta zein den diru-sarrera horien aplikazioa diruz lagunduriko jardueretan.

- Gastuak: izandako gastu guztien likidazio zerrenda bat aurkeztuko da eta zerrendan azaltzen den zenbakiarekin bat etorri behar du gastu hori zuritzeko aurkezten den fakturak edo tiketak. Ez dira kontutan hartuko, txosnarako egin diren material gastuak (edalontziak, edariak, janariak, e.a.)

Likidazioetan ondorengo zurigarriak onartuko dira:

** Nominak.*

** Gizarte Segurantzako **RLC** edota **RNT** dokumentuak.*

** Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenari buruzko atxikipenen aitorpenaren 110 eta 111 dokumentuak.*

** Finantza-erakundeek egindako Banku zorpetzeko karguen ziurtagiri edo dokumentuak, faktura*



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:
2026AAH20031

Auzoetako jaiak: Lankidetzeta Hitzarmena

baten datuak dituztenak, zenbakia eta seriea izan ezik.

** Faktura sinplifikatuak edo tiketak. Bakarrik onartuko dira **400** eurotik beherakoak. Beti ere datu fiskalak barne dituela, ematen duena ondo identifikatuta egon behar du, eta erosketaren kontzeptua identifikatuta azalduko da. Ez dira eskuz idatzitako oharrik onartuko.*

** Fakturak. Informazio fiskala osoa jaso beharko dute; hau da: ematen eta jasotzen duenaren identifikazioa (izen deiturak, NA edo IZK, helbidea, telefonoa); faktura zenbakia, data, eta BEZ.*

** Faktura pertsonalak. Faktura emailearen informazioa jasoko dute (izen-abizenak, NA, helbidea, telefonoa), eta PFEZean % 2ko gutxieneko atxikipena izango dute.*

** Sariak: 300€ edo gutxiagoko sarien kasuan, banku transferentziaren ordainagiria eta epaimahaiaren akta sinatua aurkeztu beharko dira.*

- Sarrerak : izandako sarrera guztien zerrenda ere aurkeztuko da eta kontzeptu bakoitzaren zenbatekoa idatziko ere. Sarrera egiaztagarri ofizialik ez dagoenean, emalearen edo hartzailearen zinpeko idatzia aurkeztuko da.

Jaien batzorde antolatzaile bakoitzak du SGAE edo Jabetza intelektualakudeatzeko bestelako erakundeei dagokion kopurua ordaintzeko erantzunkizuna.

Zazpigarrena: Bateragarritasuna beste diru-laguntza publikoekin.

Hitzarmen honek arautzen duen diru-laguntza bateragarria izango da helburu bera duten bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, bestelako administrazioetatik edo erakunde publikoetatik edo pribatuetatik datozenak.

Dena den, diru-laguntza hau bateraezina da helburu berarentzat Andoaingo Udaletik eta/edo bertako organismo autonomoetatik datozen bestelako diru-laguntzak edo laguntzat hartzearekin. Era horretan, entitate onuradunak uko egiten dio edozein laguntza edo diru-laguntza motari egokituko ahalko litzaiokeena Udalaren departamentuek edo organismo autonomoek diru-laguntzetarako eginiko deialdien arabera.

Hala guztiz ere, emandako laguntzen zenbatekoa, bakarrean edo batera, inola ere ezingo da izan diru-laguntzaren xedearen balioa baino handiagoa.

Zortzigarrena: Hitzarmena ez betetzea eta diru-laguntza itzultzea.

Diru-laguntzaren entitate onuradunak bete beharreko edozein eginkizun ez betetzeak ekarriko du diru-laguntza berrikustea edo indarrrik gabe uztea, eta hala balegokio, emaniko diru-kopurua gutxitzea edo itzultzea. Hori guztia aurreikusita dago Ordenantzan eta Legean. Dena den, erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio.



Andoingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:
2026AAH20031

Auzoetako jaiak: Lankidetzaz Hitzarmena

Izaniko ez betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpidea erabiliko da.

Ezingo balitz edo interesik ez balego lan garapena jarraitzeko proiektuaren bideragarritasunari edo izaerari atxikiriko arrazoiak edo behar bezala justifikaturikoak bestelakoak direla-eta, bi aldeek adostu ahal izango dute hitzarmena bertan behera uztea edo etetea.

Bederatzigarrena: datu pertsonalak babestea.

Datu pertsonalak tratatuko balira, bi aldeek adosten dute Datu Pertsonalak Babesteko apirilaren 27ko 2016/679 Europako Erregelamenduak eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezarritakoa betetzea.

Hamargarrena: Lan arriskuen prebentzioa.

Diru-laguntzaren entitate onuradunak, proiektuaren edo diruz lagunduriko jardueretan, indarrean dagoen araudia beteko du lan arriskuak prebenitzeko alorrean, azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, eta berau garatzeko araudia.

Hamaikagarrena: Araubide Juridikoa.

Hitzarmen honek administrazio izaera du, eta horregatik interpretazioa eta garapena arautuko dira ordenamendu juridiko administratiboak ezarritakoaren arabera.

Hitzarmen honetan jarri gabe geratu diren alderdi guztietan administrazio alorrean indarrean dagoen legeria ezarriko da eta, batik bat, Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen diren jendeaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak arautzen dituen 10/2015 Legearen helburua betetzea, hau da, ziurtatzea jendeaurreko ikuskizun eta jolas-jarduerak garatzerakoan bermatzen direla partaide eta ikusleen segurtasuna eta osotasuna, eta herritarren bizikidetzaren ere, eta ez dela ordena publikoa hausten. Baita, Andoingo udalean diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantza, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan, non bertan onartzen den azaroaren 26ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrearen Arautegia, urriaren 1eko 39/2015 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa eta urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa. Subsidiarioki, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

Hamabigarrena: Eskumeneko Jurisdikzioa.

Aldeen artean sor daitezkeen auziak ebazteko eskumena izango dute Administrazioarekiko auzien Donostiako Epaitegiek, eta, era horretan bi aldeek onartzen dute epaitegi horien lurralde-eskumena.

Aurreko guztiarekiko adostasuna erakusteko, parte hartzen duten aldeek hitzarmen hau sinatzen



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:
2026AAH20031

Auzoetako jaiak: Lankidetzaz Hitzarmena

dute, bi aletan eta eragin bakarrerako, idazpuruan adierazten den idazpuruan.

**Bihurri Etxeberrietako Jaiak elkartearen
Izenean**

Stua.: Nikasio Murillo Tena

Hezkuntza eta Kulturako Zinegotzi Ahaldua

Stua.: Marta Lasa Goñi

UDALEKO IDAZKARIA,

Stua.: Unai Rekondo



EKS | CSV: ESKU196986bb-e73f-44f1-acbe-0186ef4df9bd

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910>